


ARTXIBO BILUZIA

Konferentzia performatiboa & antzerkia



Metrokoadroka kolektiboak
Joan Mari Torrealdei Bekarekin sortutakoa

Jakin eus



Usurbilgo Udala



Zer istorio nahi zenuke historiara pasatzea?

SINOPSISIA

Joan Mari Torreal dai atxilotu zutenean, poliziak bere etxetik dokumentu zenbatezinak eraman zituen; “Biluzik utzi ninduten, ez fisikoki, bai intelektualki”, kontatuko zuen beranduago. *Artxibo biluzia* pieza sortzeko egun hartan hutsik geratutako karpeta bat irudikatu dugu, eta baliabide eszenikoekin betetzen saiatu gara, gure buruari eta publikoari galdera hau eginez: “Zer istorio nahi zenuke historiara pasatzea?”.

Konferentzia performatiboa, dokumentu-antzerkia eta umorea uztartzen dituen pieza eszenikoa da *Artxibo biluzia*. Bi aktore ikusiko ditugu eszenan, publikoarekin elkarriketan, ikerketa bat abiatzen, dokumentu bat akzioa fisikoaren pizgailua izan daitekeen frogatu nahian.

ARTXIBO BILUZIA I. Joan Mari Torreal dai Ikerketa Bekari esker Metrokoadroka kolektiboak sortu duen proiektua da.

LANTALDEA

Aktoreak: Intza Alkain eta Javier Barandiaran.

Zuzendaritza eszenikoa: Marina Suarez Ortiz de Zarate eta Oier Guillan.

Argiak: Imanol Garcia.

Ikerketako zuzendaritza artistikoa: Idoia Beratarbide.

Ekoizpena: Josu Zubia.

Argiak: Imanol Garcia Iturrioz.

Promo argazkiak: Amets Badiola Rubio.

Proiektuan kolaboratzaileak: Danele Sarriugarte, Maria Elorza, Nagore Legarreta.

Bidelagunak: Azala krea zio espazioa, Kampai espazioa, Laudioko kultur faktoria, Ehuntze espazioa, Baratza aretoa, La Monstrenka aretoa.

Bultzatzaileak: Jakin eta Usurbilgo Udala.

“ARTXIBO BILUZIA” PROIEKTUAZ

“Joan Mari Torreal dai beka” jarri dute martxan Usurbilgo Udalak eta Jakin aldizkariak. Hori izan da Metrokoadroka kolektiboaren ikerketa eszeniko hau abiatzeko pizgailua.

Dokumentazio lana iraganaren inguruan narrazio bat sortzen lagundu ahal digun langintza da. Narrazio hori beti orainean ematen da, gaurko begiekin, eta etorkizunera proiektatzen da, arrastoek beren kabuz denboran hitz egingo duten itxaropenarekin. Ikerketa eszenikoko proiektu honetan Metrokoadroka kolektiboak prozesu horren une bati erreparatu dio batez ere: izan daiteke dokumentua, bere horretan, akzio bate pizgailua? Izan daiteke dokumentu bat goputzak martxan jartzen dituen detonantea?

Proiektu hau bi ildotan gauzatuko du Metrokoadroka kolektiboak: batetik, performance-laborategi bat, idazketa dramatikoan eta akzio eszenikoan oinarritua, Euskal Herriko hainbat espazioetan gauzatuko dena (Gasteizko Baratza aretoan eta Oiartzungo Ehuntze espazioan, besteak beste). Bestetik, formatu txikiko pieza eszeniko bat, ekintza performatiboaren bitartez publiko talde txikiekin zuzenean dialogatuko duena.

Ikus gehiago hemen:

[Jakin](#)

[Naiz Irratia](#)

[Gara](#)

[Berria](#)

Kritikak eta kronikak:

[Artxibo biluzia eta hutsune betea](#) (Jakin)

[Artxiborik ez duenak badu izana?](#) (Berria)

Maria Elorzak egindako TEASERra:

[Teaser](#)

TALDEARI BURUZ

Metrokoadroka Sormen Laborategia Oiartzun eta Errenteria/Oreretako artista sare batek sortu genuen 2008an, helburu honekin: arte eszenikoetan eta arte plastikoetan proiektuak sortzea, laguntzea eta zabaltzea, beti ere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimentazioari lehentasuna emanez. Diziplina artistiko ezberdinak uztartzea da esperimentazio horren oinarri nagusietako bat.

Arte plastikoei dagokionez, 2014an Oiartzunen zabaldutako EHUNTZE sormen espazioaren baitan gauzatzen dugu hainbat proiektu (sormen laborategiak, mikroerrezitaldiak, “21 aulki” arte zikloa...).

Arte eszenikoei dagokionez, performancea, interdiziplinitatea, poesia fisiko-bisuala eta site specific proiektuak izan dira nagusi gure ibilbidean, hala pieza eszenikoetan nola fomazioetan. Hauek izan dira gure azken lanak: *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan* (2022), *Bidaide* (2021), *Andrezaharraren manifestua* (2020), *Txolarte* (2020), *Aldarri* (2019), *Zauri Bolodia* (2019), *Hugo, nor dada Emmy?* (2019), *Zanbuia!* (2018) eta *Miss Karaoke* (2017).



Metrokoadroka kolektiboa
metrokoadroka@metrokoadroka.eus
www.metrokoadroka.eus
+ 34 679977276

<https://www.facebook.com/metrokoadroka.laborategia>
<https://twitter.com/metrokoadroka>
<https://www.instagram.com/metrokoadroka/>

ARGAZKIAK

(Egilea: Amets Badiola Rubio)





ARTXIBO BILUZIA ikerketa eszenikoa. Seigarren gogoeta

GORPUTZA ERE DOKUMENTU BAT IZAN DAITEKE



